Zangoza / 2022

# KULTUR AGENDA

## azaroa




Ayuntamiento de Sangüesa/Zangoza

PALACIO VALLESANTORO

Nafarroako Gobernua

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

## Vallesantoro Jauregia/Kultura-Etxea

**Kultura-zerbitzuko arreta ordutegia:** astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

**Erakusketa Aretoko Ordutegia:** Aasteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara. Igande eta Jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

**Helbidea:** Alfontso Borrokalaria Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetan eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es. Facebooken eta Instagramen eta www.sanguesacultura.es
web-orrian gure kultura-agenda jarrai dezakezu eta datuak babesteko legea honakoetan kontsultatu: www.sanguesa.es

www.facebook.com/culturasanguesa

www.instagram/com/culturasanguesa

## Carmengo Entzunaretoa

**Aldez aurreko salmenta: azaroaren 2tik aitzina** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. **Tfnoa:** 948 870 251.

**Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan:** Karmengo Entzunaretoko txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik. **Argibide telefonoa:** 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Udalak pertsona bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izanen du ikuskizunaren arabera. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko Ikuskikunaren etena sarreren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izanen da.

**Beherapenak Gazte txartelarekin:** 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beherapenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretora sartzean, bai sarrera aretoan bertan erosten bada, bai internet bidez erosten bada.

**ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA**

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozatzen ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

**ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO**

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikoan edo deitu 948870251 telefonora, edo adierazi txartel-leihatilan erosketa egiterakoan.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

L.G.: NA 1735-2012

aurkibide kronologikoa

Zangoza / 2022

# KULTUR AGENDA

## azaroa













| | | | |
|---|---|---|---|
| **1** | As | Erakusketa. "Nafarroako artisten begirada Bidearen ezagutzari" | |
| | | (azaroaren 6a bitarte) | 4. orr. |
| 2 | Az | | |
| 3 | Og | Zangoza sortu zeneko 900. Urteurrena (1122-2022) | |
| | | Hitzaldia. "Sangüesa y su río. Aprovechamiento histórico" | 8. orr. |
| 4 | Os | | |
| 5 | La | Antzerkia. "Hotel Flamingo" | 5. orr. |
| **6** | Ig | Zinea. "Ron da error" | 7. orr. |
| 7 | Al | | |
| 8 | As | | |
| 9 | Az | Ipuin-kontalaria. | |
| | | "Que paren el cuento que me bajo" (gaztelania) | 7. orr. |
| | Az | Zangozako Musika Eskolako ikasleen kontzertua | 9. orr. |
| 10 | Og | Erakusketa. "Si ves une extrañe, salúdale de mi parte" | |
| | | (abenduaren 11a bitarte) | 4. orr. |
| 11 | Os | Hitzaldia. "La prostitución en Navarra desde | |
| | | un enfoque de género y derechos humanos" | 12. orr. |
| 12 | La | | |
| **13** | Ig | Antzerkia. "Kimera" | 5. orr. |
| 14 | Al | | |
| 15 | As | | |
| 16 | Az | | |
| 17 | Og | Zangoza sortu zeneko 900. Urteurrena (1122-2022) | |
| | | Hitzaldia. "Sangüesa fronteriza y sus guerras" | 8. orr. |
| 18 | Os | Zezilia Donea. Musika Eskolako Bandaren kalejira | 9. orr. |
| 19 | La | | |
| **20** | Ig | Zangoza sortu zeneko 900. Urteurrena (1122-2022) | |
| | | Nora Abesbatzaren kontzertua | 8. orr. |
| 21 | Al | | |
| 22 | As | | |
| 23 | Az | Euskarazko ipuin kontalaria eta eskulan lantegia | 7. orr. |
| 24 | Og | Genero-indarkeariaren aurko nazioarteko eguna. | |
| | | Hitzaldia. "Beste indarkeria batzuk" | 10. orr. |
| | Og | Zangozako Musika Eskolako ikasleen kontzertua | 9. orr. |
| 25 | Os | Genero-indarkeariaren aurko nazioarteko eguna. | |
| | | Elkarretaratzea | 11. orr. |
| | | Zinea. "Custodia compartida" | 11. orr. |
| 26 | La | Antzerkia. "Conservando memoria" | 6. orr. |
| | La | Open Science | 12. orr. |
| **27** | Ig | Txotxongiloak eta objektuen antzerkia. | |
| | | "El monstruo de colores" | 6. orr. |
| | Ig | Open Science | 12. orr. |
| 28 | Al | | |
| 29 | As | | |
| 30 | Az | | |
| **1** | Og | Kultur astea Horizonte Elkartea. Zangozako | |
| | | Gaiteroen kontzertua | 10. orr. |
| 2 | Os | Kultur astea Horizonte Elkartea. Udal Banda | |
| | | Elkartearen kontzertua | 10. orr. |

Azaleko irudia: "Conservando memoria".

# Erakusketak



**“Nafarroako artisten begirada Bidearen ezagutzari”**

## AZAROAREN 6RA BITARTE

Beren lan ibilbidean zehar Donejakue bideko paisaiak, monumentuak edo herriak islatu dituzten 22 artista nafarren margolan eta eskulturen erakusketa.
Erakusketa hau 2021eko urrian inauguratu zen Nafarroako Parlamentuan, eta, ondoren, Bidearekin harremana duten herriak bisitatu ditu, hala nola:
Viana, Los Arcos, Gares, Lizarra, Luzaide, Zizur Txikia eta orain, Zangoza.
Erakusketa Iruñeko Kondestablearen Jauregian bukatuko da azaroaren 15etik abenduaren 31ra, 2021-2022 urte santuak horrela amaituz.

**Antolatzailea:** Nafarroako Kazetarien Elkartea eta Nafarroako Gobernua.




**“Si ves une extrañe, salúdale de mi parte”**
LEIRE URBELTZ

## AZAROAREN 10ETIK ABENDUAREN 11RA

“Beste lurraldeetara bidaiatzea norberaren mugak bilatzea da.
Etxetik urruntzen zaren bitartean, zure barne geografia elastikoagoa bihurtzen da. Bitxia da. Inguratzen zaituen guztiarekin ezezagutzen zarenean, zure ohiturek bahitu dizuten arreta erreskatatzen duzu. Itzultzen zarenean oraindik neskatila zauritu berdina zara, baina orain urruntzeko ahalmen handiagoarekin”. Leire Urbeltz

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

**Erakusketa Aretoko ordutegia:** Asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

# Arte Eszenikoak
## Karmengo entzunaretoan






**ANTZERKIA, KEINU-UMOREA**
**“Hotel Flamingo”**
CLOWNIC

### LARUNBATEAN, AZAROAK 5

Flamingo Hotela Clownic konpainiak bere antzerki gurasoei, Tricicleri, egiten dien omenaldi berezia da. Flamingo Hotel zaharrak ateak ireki nahi ditu berriro. Zuzendari eta jabe berriak beti negozio-sena izan du. Hori dela eta, pandemiaren erdian hoteleko ateak irekitzeko ideia handia izan du. Erabat konbentzituta dago Flamingo Hotelaren arrakasta handiaz. Clownic-ek 10 segundoan behin barrea eragiten die ikusleei erritmo biziarekin, oraingoan Flamingo Hoteleko harrera-mahaiaren atzean.

**Antzerkilariak:** Edu Méndez, Gerard Domènech eta Carles Bigorra.
**Ikusleak:** Gazteak eta helduak.
**Iraupena:** 75 minutu.
**Ordua:** 20:00.
**Sarrerak:** 10 €.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.





**ANTZERKIA, ZIRKUA, MUSIKA**
**“Kimera”**
LA BANDA TEATRO-CIRCO

### IGANDEAN, AZAROAK 13

Antzerkiaren, zirkuaren eta musikaren bidez bidaia emozional bat planteatzen duen diziplina anitzeko ikuskizuna. Zama-kai bat. Merkantzien artean, ustekabe bat: migratzaile bat, bizimodu hobe baten bila.
Pieza honek pertsonak dena uztera bultzatzen dituzten motiboetan pentsatzera eta leku ezezagunetara bidaiatzera gonbidatzen gaitu, zalantzazko etorkizun bat aurkitzeko. Ikuskizun dibertigarri eta hunkigarria, begirada, gorputza, trebezia eta abilezia uztartzen dituena unibertso berezi bat eraikitzeko. Emoziozko apustu ozena.

**Ikusleak:** Ikusle guztiendako, 7 urtetik aurrera.
**Iraupena**: 55 minutu.
**Ordua:** 19:00.
**Aldez aurreko sarrerak:** 6 €. **Txartel-leihatilan:** 8 €.
**Sarrerak Gazte txartelarekin:** 5 €. Beharrezkoa izanen da Gazte Txartela leihatilan aurkeztea, sarrera bertan edo internet bidez erosita ere.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

# Arte Eszenikoak
## Karmengo entzunaretoan




**ANTZERKIA**
**"Conservando memoria"**
EL PATIO TEATRO
### LARUNBATEAN, AZAROAK 26

"Conservando memoria" aitona-amonei egindako omenaldi poetiko eta ederra da, hitzaren eta objektuen antzerkiaren bitartez. Bertan, Izaskun Fernandez egile eta antzezleak gurekin partekatzen du haiek gordetzeko nahia, bere memoria gordetzekoa, poteratzekoa, egun batean haien absentzia saihes ahal dezagun.
"Conservando memoria" antzezlanak egile onenaren saria jaso du ex aequo, hala nola, -Feten 2020, 2019ko Violeta Jaialdiaren saria, Drac d 'or dramaturgia onenaren saria - Fira de titelles de Lleida 2019, Erkidegoen Drac d' saria - Fira de titelles de Lleida 2019 eta RNEren antzerkiaren begi kritikoa saria, 2021.
**Ikusleak:** Gazteak eta helduak.
**Iraupena:** 45 minutu.
**Ordua:** 20:00.
**Aldez aurreko sarrerak:** 8 €. **Txartel-leihatilan:** 10 €.
**Sarrerak Gazte txartelarekin:** 5 €. Beharrezkoa izanen da Gazte Txartela leihatilan aurkeztea, sarrera bertan edo internet bidez erosita ere.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.




**TXOTXONGILOAK ETA OBJEKTUEN ANTZERKIA**
**"El monstruo de colores"**
TUTATIS
### IGANDEAN, AZAROAK 27

Kolore horiak esan nahi du pozik zaudela. Urdina tristura da, gorria amorrua... A zer nahaspila! Kolore bakoitzak emozio bat adierazten du, baina ulertzen jakin behar da horiek ordenatzeko. Txotxongilo, musika eta kolore ikuskizuna, haurrak eta helduak bidaiarazteko emozioen munduan barrena. Anna Llenasen «El monstruo de colores» antzezlanaren antzerki moldaketa 300.000 kopia baino gehiago saldu dituena, 16 hizkuntzatara itzulita.
**Ikusleak:** Sendiak eta haurrak, 2 urtetik aurrera.
**Iraupena:** 45 minutu.
**Ordua:** 18:00.
**Aldez aurreko sarrerak:** 3 €. **Txartel-leihatilan:** 5 €.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

# Zinea



**"Ron da error"**

**IGANDEAN, AZAROAK 6**

Gauzak okertu dira Barney, lagun gutxiko bigarren hezkuntzako ikaslea, digitalki konektatutako gailu bat jasotzen duenean, baina funtzionamenduan akatsak dituena.  Eta bere lagunik onena izan behar du, funtzionatzeko prest! Ekintzaz beteriko animaziozko istorio honetan, sare sozialen garaian girotutakoa, haur batek eta bere robotak benetako adiskidetasuna suposatzen duen kaos zoragarria ezagutuko dute.

**Ikusleak:** Ikusle guztiendako.
**Iraupena:** 106 minutu.
**Ordua:** 18:00.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa. **Sarrerak:** 3 €.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Ipuin-kontalaria



**"Que paren el cuento que me bajo"**
(Gaztelaniazko ipuin kontalaria)
MAIDER LEKUNBERRI

**ASTEAZKENEAN, AZAROAK 9**

Indartsu guztiak ez dira ausartak, ezta neska argal guztiak ahulak ere. Printzesa guztiak ez dira arrosak, ezta printze guztiak urdinak ere. Gauza ziurra da pertsona guztiak aske garela izan nahi duguna izateko.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.




**"Kasildaren logela"**
Euskarazko ipuin kontalaria eta eskulan lantegia

**ASTEAZKENEAN, AZAROAK 23**

**Euskarabideak Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta antolatu duen egitarauaren parte da ekitaldi hau.**
Haurrek euskarazko ipuinak aukeratu ahal izanen dituzte. Ipuin kontalariaren saio txiki bat eginen da, eta, amaitzeko, orri-markagailu propioa diseinatu eta sortu ahal izanen dute kartoi meheekin, errotuladoreekin, eranskailuekin eta abarrekin.
**Antolatzailea:** Nafarroako Gobernua.
**Laguntzailea:** Zangozako Udala.

**Ikusleak:** 3 urtetik gorako haurrak.
**Iraupena:** 50 minutu.
**Ordua:** 18:30. **Doako sarrera**.
**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

# Zangoza sortu zeneko 900. Urteurrena (1122-2022)

## “HISTORIAREKIN HITZORDUA” HITZALDI ZIKLOA

**“Sangüesa y su río. Aprovechamiento histórico”**

**OSTEGUNEAN, AZAROAK 3**

**Hizlaria:** David Alegría.

**“Sangüesa fronteriza y sus guerras”**

**OSTEGUNEAN, AZAROAK 17**

**Hizlaria:** Pello Monteano.

**Ordua:** 19:00.
**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.



## NORA ABESBATZAREN KONTZERTUA

**Zangozako musikagileak**

**IGANDEAN, AZAROAK 20**

Nora Abesbatzak Zangoza hiriaren 900 urteen oroitzapenean parte hartuko du kontzertu batekin. Kontzertu horretan, hiriak mendeetan zehar eman dituen musikagileen ondare aberats eta askotarikoaren obrak aurkeztuko ditu. Juan Francés de Iribarrenen barrokotik, XIX. mendeko egileen potentzialetik igaroz, hala nola, Vallejos sendia (Evaristo, Jesus eta Genaro), Buenaventura Íñiguez edo Daniel Piudo, eta XX. mendearekin amaituz, Luis Elizalde edo Antonio Guerreroren lanekin.

**Ordua:** 12:00.
**Lekua:** San Frantzisko Asiskoaren eliza.

# "Juan Francés de Iribarren" Musika Eskola



**ZANGOZAKO «JUAN FRANCÉS DE IRIBARREN» MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN KONTZERTUAK**

**ASTEAZKENEAN, AZAROAK 9 ETA 24**

**Ordua:** 19:30.

**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

# Zezilia Donearen Ospakizuna



**"JUAN FRANCÉS DE IRIBARREN" MUSIKA ESKOLAKO BANDAREN KALEJIRA**

**OSTIRALEAN, AZAROAK 18**

**Ordua:** 18:00.
**Abiapuntua:** Musika Eskola.
**Antolatzailea:** Zangozako "Juan Francés de Iribarren" Musika Eskola.

# Helduak euskalduntzeko diru-laguntzen deialdia



**AZAROAREN 18RA ARTE (14:00ETAN)**

Oinarriak eskuragai dituzue Kultura-zerbitzuan edo udaleko web-orrian www.sangüesa.es eta www.sanguesacultura.es

# Kultur astea Horizonte elkartea

ASOCIACION HORIZONTE
J.V.P.
31400 SANGÜESA
(NAVARRA)
Plaza de los Fueros, 7, bajo
Tel. 87 08 25

## AZAROAREN 28TIK ABENDUAREN 3RA

### ZANGOZAKO GAITEROEN KONTZERTUA

### OSTEGUNEAN, ABENDUAK 1

**Ordua:** 20:00.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Doako sarrera.** Gonbidapenak azaroren 2tik aurrera Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean hartu ahal izanen dira 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta internetetik www.sanguesacultura.es edo www.sanguesa.es web-orrietan.
**Laguntzailea:** Zangozako Udala.



### UDAL BANDA ELKARTEAREN KONTZERTUA HORIZONTE ELKARTEAREN ERRONDAILA ETA KORUAREKIN BATERA

### OSTIRALEAN, ABENDUAK 2

**Ordua:** 20:00.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Sarrerak:** 5 €.
**Laguntzailea:** Zangozako Udala.

# Genero-indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna



### HITZALDIA "BESTE INDARKERIA BATZUK" ZIKLOA

### OSTEGUNEAN, AZAROAK 24

Indarkeria ekonomikoari buruzko hitzaldia, **Sara Vicente** abokatuaren eskutik.
Lan-eremuan edo eremu zibilean egon daiteke, edo ondorio penalak izan ditzake. Hitzaldian arazo horretara hurbilduko gara, nola jokatu behar dugun jakiteko.
**Ordua:** 19:00.
**Lekua:** Zangozako Udalaren Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.

# Genero-indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna



## ELKARRETARATZEA

### OSTIRALEAN, AZAROAK 25

Elkarretaratzea «Zangozak emakumeen kontrako biolentziaren aurka lan egiten du» lelopean.

**Partaideak:** Sierra de Leyre BHI, Luis Gil Ikastetxe Publikoa, Zangozako Ikastola, Etxekoandreen Elkartea, Zangozako Gurutze Gorria, Sorginak Talde Feminista, Zsngozaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua eta Cederna Garalur.

**Ordua:** 12:00.
**Lekua:** Galeria.




## FILMA PROIEKTATZEA "Custodia compartida"

### OSTIRALEAN, AZAROAK 25

Myriam eta Antoine Besson dibortziatu egin dira, eta emakumeak Julien semearen zaintza eskatu du, berak bortitzat jotzen duen aitarengandik babesteko. Antoinek aita mespretxatu gisa defendatuko du bere kasua, eta kasuko epaileak zaintza partekatuaren aldeko epaia emango du.
2017ko Veneziako Nazioarteko Zinemaldiko Zilarrezko Lehoia izan zen Xavier Legrandek 2017an zuzendutako drama film frantziarra da. Erantzuki isil bakoitzean, mehatxuzko hitz bakoitzean, ukabil bakoitzean bizi den indarkeria jorratzen du.

**Ordua:** 19:00.
**Lekua:** Zangozako Udalaren Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.
**Antolatzailea:** Zangozako Udalaren Gizarte-gaietarako Batzordea.

# Beste zenbait ekitaldi



**OPEN SCIENCE**

**“Ciencia ciudadana con Cajal” Jardunaldia**

## LARUNBATEAN, AZAROAK 26

**17:00.** Zentifikorako sarrera.
**18:00.** Neurozientzia ikuskizun parte-hartzailea: Kontrolatu esku robotiko bat.
**19:30.** Neurociencia y Cajal: Conversación con jóvenes científicas de Navarra.

**Doako sarrera.**
**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea.



## IGANDEAN, AZAROAK 27

**11:00.** Eraiki eta erabili mikroskopio bat zure smartphonerako.
**12:30.** Landare eta giza zelulak tindatzea. Mikroskopio bidezko behaketa eta analisia..

**Doako sarrera.**
**Lekua:** Gazteleku.

**Antolatzailea:** UiS eta Zangozako Udala.
**Laguntzailea:** BIOOK.
**Nafarroako Gobernuko Berrikuntza Zuzendaritza Nagusiak diruz laguntzen du** (COSMOS 2022).




**HITZALDIA**

**“La prostitución en Navarra desde un enfoque de género y derechos humanos”**

## OSTIRALEAN, AZAROAK 11

**Hizlaria:** Munduko Medikuak.

Prostituzioaren inguruan dauden mito eta estereotipoei helduko zaie, parte-hartzea eta hausnarketa kritikoa sustatuz. Munduko Medikuak erakundeak Nafarroan prostituzioan eta sexu-esplotaziorako salerosketan dauden pertsonekin egiten duen lanean aurkitzen duen errealitatea azalduko da.

**Ordua:** 19:00 h.
**Lekua:** Zangozako Udalaren Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.
**Antolatzailea:** Zangozaldeko Mankomunitatea.